

DEIALDIA:

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII) eta Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa (GTBZ) erakundeekin batera, jarduera honen deialdia egin du, Medikuntza Pertsonalizatuarekin eta Terapia Aurreratuekin lotutako I+G+b arloko proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

Interneteko helbidea:

<https://www.isciii.es/QueHacemos/Financiacion/solicitudes/Paginas/default.aspx>

Deialdiaren xedea:

ISCIII-GTBZren jarduketa koordinatuaren **barruan**, Medikuntza Pertsonalizatuarekin eta Terapia Aurreratuekin lotutako I+G+b arloko proiektuak finantzatzea.

I+G+b arloko proiektuak xede hauetara egokitu behar dira:

1. **XEDEA: DIAGNOSTIKO GOIZTIARRA ETA ZEHATZAGOA**
2. **XEDEA: TRATAMENDU BERRITZAILE ETA PERTSONALIZATUAK**
3. **XEDEA: GAIXOTASUN KRONIKOEN JARRAIPENA ETA ERREHABILITAZIOA HOBETZEA**

Proiektua gauzatu ondoren, berehalako industria eta/edo enpresa aplikagarritasunaren emaitza izatea da helburua; hortaz, proiektua garatzean ezagutza zientifikoa sortzea gorabehera, proiektuaren egikaritze ebidentziak erabilitako eta/edo sortutako ezagutza zientifikoaren industria eta/edo enpresa erabilerari lotuta geratuko dira.

Jarduketa koordinatuari esker, barne koherentzia handia eta etengabeko atzeraelikadura egotea espero da proiektu osoan.

Informazio garrantzitsua: **INTERES ADIERAZPENAK:**

Eskaera bat aurkeztu ahal izateko, GTBZ-ISCIIIren interes adierazpenean agertu behar da, eta dagokion proposamen kodea izan. Enpresek agiri hori aurkeztuko dute GTBZ erakundearen [egoitza elektronikoan](#). Ezinbesteko betebeharra da.

Proiektu motak:

Proiektu guztiek 2 urte iraungo dute (23/01/01etik 24/12/31ra) eta modalitate hauetakoren batean aurkeztu ahal izango dira:

- a) **Banakako proiektuak:** erakunde eskatzaile batek aurkeztuak, ikertzaile nagusi arduradun bat buru duen ikertalde batek gauzatzeko. Ebaluatzeko kontuan hartuko dira bereziki 1977an edo ondoren jaiotako ikertzaile hasiberriek zuzendutako proiektuak.
- b) **Proiektu koordinatuak:** bi azpiproiektuz edo gehiagoz osatuak; memorian behar bezala justifikatu beharko dute koordinazio horren beharra proposatutako xedeak lantzeko. Halaber, proiektutik zer onura espero diren ere adierazi beharko da. Azpiproiektu bakoitzak bere taldea eta ikertzaile nagusia izango ditu. Ikertzaile nagusietako bat koordinatzailea izango da, eta proiektuaren garapenaren arduraduna izango da. Proiektu koordinatuak, ofizioz, banakako proiektu bihurtu ahal izango dira koordinazioa beharrezkotzat jotzen ez bada.

IKERTZAILE NAGUSIAK ETA IKERTALDEAK:

7.4 eta 7.5 artikulua kontsultatzea komeni da, bertan parte-hartzeko baldintzak jasotzen baitira.

Bateraezintasunak: ikertzaile nagusiak eta ikertaldeko gainerako kideak ezingo dira eskaera batean baino gehiagotan agertu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

Deialdiaren 8. artikulua kontsultatzea gomendatzen da, proiektuetan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak jasotzen baititu.

Eskaerak aurkezteko epeak:

Eskaerak aurkezteko epea **2022ko urriaren 6tik 26ra (15:00)** bitartean izango da, bi egunak barne.

Eskaeran sartzeko:

<https://www.isciii.es/QueHacemos/Financiacion/solicitudes/Paginas/default.aspx>

Eskaera izapidetzeko prozedura:

Deialdian interesa izanez gero, eskaera betetzen hasi aurretik [ohiko galderak](#) kontsultatzea komeni da.

Eskaera egin ahal izateko, aurkeztutako interes adierazpenari esleitutako kodea erabili beharko da.

Datuak aplikazioan sartu aurretik, **urriaren 17a** baino lehen Ikerketako webgunean zintzilikatutako Langileen Excela bidali beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari (helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es), taldea berrikusi ahal izateko, deialdian ezarritako betebeharren/bateraezintasunen arabera. Proposatutako langileei buruzko adostasuna jaso ondoren, eskaerak elektronikoki beteko dira, ISCIIIren webgunean.

Eskaerak eta gainerako dokumentazioa eskaeren aplikazio informatikoan aurkeztuko dira, ziurtagiri elektronikoko sistemak baliatuz. Hori da eskaerak aurkezteko modu BAKARRA.

Legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa lortzeko, **eskaera behar bezala aurkezteko behar den bakarra**, mezu elektronikoa bat bidali beharko da convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera **urriaren 23a baino lehen**, eskaera sinatzeko sortu dela adieraziz eta hauek erantsita:

- Sortutako **eskaera inprimakia**.
- Proiektuaren **memoria**.
- **Ikertzaile nagusiaren CVA** (eta IN ko.-rena ere bai, hala badagokio), automatikoki sortua [CVN editoretik](#) edo **CVA-ISCIII** erakundeei zerbitzua ematen dien ZTEeren **CVN arauan ziurtatutako edozein erakundetatik**.

Aplikaziotik telematikoki izapidetutako eskaeren inprimakiek erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura beharko dute soilik. Deialdi honetan, alabaina, erakunde onuradunari eskatzen zaio proiektuetan parte hartzen duten pertsonen gainerako sinadurak zaintzea eta egiazkoak izatea. Hori dela eta, prozesua amaitu ondoren, posta elektronikoz (convocatorias.dgi@ehu.eus) edo posta korreoz bidali beharko da.

Posta korreorako bidalketarako helbidea: Deialdien kudeaketa (I+D+I ISCIII)

Errektoretzaren eraikina, 2. solairua Sarriena auzoa zk.g.,
48940, Leioa

Ez da sinatuko adierazitako barne epearen ostean iristen den eskaerarik, eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko da automatikoki.**UPV/EHUko harremanetarako pertsona:**

Telefono-zenbakia: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es

